ESPARRU-AKORDIOA, LASARTE-ORIAKO HERRITARRENTZAKO IZAPIDE ELEKTRONIKOETARAKO AUTOZERBITZU-TERMINALEN HORNIDURA ETA HAIEN MANTENTZE-LANETARAKO ETA EGUNERATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKOA

- PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA–

1.- ESPARRU-AKORDIOAREN XEDEA

Esparru-akordio honen xedea da herritarrei udal zerbitzuetarako sarbidea errazteko eta izapide elektronikoak egiteko autozerbitzu-terminalen hornidura, euskarria, mantentze-lana eta eguneratzea kontratatzea.

CPV 30231100-8 - Terminal informatikoak (Nagusia)

Esparru-kontratua enpresa bakarrarekin egingo da, eta hura kontratatzeko adjudikazioan irizpide anitzeko prozedura ireki sinplifikatua erabiliko da.

Hornitu beharreko terminalen guztizko zenbatekoa ez da zehatz-mehatz definitu, eskuratzailearen, hau da, Lasarte-Oriako Udalaren beharren araberakoa izango baita.

2.- ESPARRU-AKORDIOAREN BALIO ZENBATETSIA

Esparru-akordio honen iraupena ez da izango lau urte baino luzeagoa.

Esparru-akordio honetan oinarritutako kontratuen iraupena eta esparru-akordioarena independenteak izango dira, eta SPKLren 29. artikuluan ezarritakoari jarraituko dio, kontratuen eta prestazioak egikaritzearen epealdiei buruzkoari, baita esparru-akordioak arautzen dituzten agiriei ere.

Esparru-akordioan oinarritutako kontratuak haren iraunaldian bakarrik adjudikatu ahalko dira. Betekizun hori bete dela ulertzeko data hartan oinarritutako kontratuaren adjudikazio-eguna izango da.

Balio zenbatetsia, guztira, 85.600 eurokoa da (% 21eko BEZa kanpo), honela xehakatuta:

Autozerbitzu-terminal bakoitza hornitzea eta instalatzea: 11.500 euroa (% 21eko BEZa kanpo)
-Terminal bakoitzaren urteko mantentze-lanen zerbitzua, 3 urtez, hartan oinarritutako kontratua adjudikatzeko egunaren hurrengo urtetik zenbatzen hasita. 3.300 euroa (% 21eko BEZa kanpo)

Honako hau da aurrekontu zenbatetsia (gutxi gorabeherakoa), Lasarte-Oriako Udalaren beharren araberakoa:

45.600 euro (1 2500.626.01.920.30)
39.000 euro (1 2500.227.01.920.30)

3.-BETE BEHARREKO LANEN ETA ZERBITZUEN DESKRIBAPENA

Adjudikaziodunak, gutxienez, honako puntu hauek bete beharko ditu:

3.1. Hornidura:

ESKU3de98c5f-c96b-4bf9-a179-2104aae5dcaa

- Autozerbitzu-terminala eta haren osagai guztiak hornitzea, instalatzea eta abian jartzea, erosketa bidez, herritarrei zerbitzu elektronikoak ematea ahalbidetzen duten aplikazioekin.
- Aldi horretan autozerbitzu-terminalak mugitzea, udalari beharrezkoa iruditzen zaion guztietan.

3.2. Funtzionalitateak:

- Terminalak honako gutxieneko funtzionalitate hauek izan beharko ditu:
  - Errolda-ziurtagiria ematea
  - Udalak sortzen dituen ordainagiriak eta likidazioak eskuratzea
  - Udalak sortzen dituen ordainagiriak eta likidazioak ordaintzea
  - Beharrezkoa den izapideetarako, hainbat ziurtagiri digitalen bidez identifikatzea
  - Udal ikastaro, jarduera eta ekitaldietan izena ematea
  - Udal ekitaldietarako sarrerak erostea
  - Izapide jakin batzuetarako hitzordua eskatzea
  - Hainbat webgunetarako estekak
  - Udal webgunean eskuragarri dauden izapideak online egitea
  - Terminalen erabilerari buruzko estatistikak ematea udal teknikarientzat.

Terminalek erabiltzaileentzako zein Lasarte-Oriako Udaleko langileentzako jarduerak edo zerbitzuak komunikatzeko bitarteko gisa balioko dute, eta haietan informazioa, kanpaina instituzionalak edo udalak antolatutako bestelako ekitaldiak iragarri jarri ahalko dira.

3.3. Dokumentazioa eta prestakuntza:

- Terminalen dokumentazio teknikoa eta erabiltzaileentzako eta administratzaileentzako eskuliburuak aurkeztea.
- Udaleko langileei terminalak erabiltzen irakastea.

3.4. Mantentze-lana, euskarria eta eguneratzea:

Kontratistak konpromisoa hartzen du bulego elektronikoen euskarri- eta mantentze-zerbitzuak emateko, agiri honetan zehaztutako moduan, kontratua hasi eta buka, gutxieneko honako baldintza hauei jarraituz:

- Astelehenetik ostiralerako bulegoko ordutegian euskarria ematea.
  - Horretarako, adjudikaziodunak telefono-zenbaki bat emango du, baita helbide elektroniko bat eta/edo gorabeherak kudeatzeko plataforma bat ere, arazoak eta/edo kontsultak helarazteko.
  - Kontratuaren xede diren produktuen eta aplikazioen erabilerari buruzko kontsulten arreta.
  - Bulego elektronikoen funtzionamenduari buruzko laguntza ematea.
  - Gorabeherak ebaztea.
  - Produktuak eta dokumentazioa eguneratzea.
  - Bulego elektronikoetako errotuluak eguneratzea, Udalaren irudi korporatiboa aldatzen bada edo biniloak narriatzen badira.

- Kontsumigarri eta ordezko pieza oro birjartzea, zerbitzuarekin jarraitzea bermatzeko, eta horiek instalatzea, ekintza konplexua bada edo autozerbitzu-terminalei buruzko jakintza aurreratuak behar badira.
- Softwarearen edozein anomalia ebazteko zuzenketarako mantentze-lana.
- Perfekzionatzeko, egokitzeko edo garatzeko mantentze-lana, sortutako behar berriei erantzutekoa.
  - Behar berrietarako aholkularitza eta analisi funtzionala.

ESKU3de98c5f-c96b-4bf9-a179-2104aae5dcaa

- Behar diren software-bertsio guztiak instalatzea eta ezartzea, baita adabakiak jartzea eta bulego elektronikoetan guztiak eguneratzea ere. Egindako eguneratzeak amaitutakoan, bulego elektronikoek ezin hobeto funtzionatzen jarraitu beharko dute.
- Adjudikazioduna izango da erabiltzaileen beharrei erantzuteko eta kanpoko betekizunen aldaketetara egokitzeko egin beharreko nahitaezko softwarearen garapenak detektatzeaz, biltzeaz, haien inpaktua aztertzeaz eta zenbatesteaz.

- Babeskopiak egiteko prozesuak eta horiek lehengoratzea automatizatzea. Adjudikaziodunak bulego elektronikoek darabiltzaten datu eta aplikazioen babeskopiak egiteko eta lehengoratzeko behar den informazio guztia eman beharko du.
- Baldin eta terminal batek gorabeherak behin eta berriz baditu, udalak ikusten badu haren funtzionamendua ez dela lortu nahi den helbururako egokia, edo era negatiboan eragiten diela emandako zerbitzuei, Udalak beste terminal batekin ordezteko eskatu ahalko du, kostu gehigarririk gabe.
- Adjudikaziodunak prebentziozko mantentze-lana egin beharko du, bulego elektronikoen hardwarearen zein softwarearen aldizkako berrikuspenak barne (erantzun-denborak, osagaien egoera, aplikazioen log-ak egiaztatzea, diskoaren espazioa eta abar), bulego elektronikoak fidagarriak direla eta ondo dabiltzala bermatzeko.
- Barnean daude, besteak beste, zibersegurtasunerako eta zibererresilientziarako behar diren eguneratzeak.

Zerbitzua ematetik eratorritako gastu guztiak (joan-etorriak, dietak, eskulana eta behar den beste edozein gastua) kontratistaren kontura joango dira.

Behin adjudikaziodunak zerbitzua abian jarritakoan, hark berehala bulego elektronikoen euskarria eta mantentze-lana eskainiko du, hala hardwarearena nola softwarearena, gerta daitezkeen eskaerak eta intzidentziak ebazteko. Euskarri-zerbitzuaren eta mantentze-lanen epea bat etorriko da kontratuaren iraunaldiarekin.

3.5. Erretiratzea

Egungo ekipamenduak kentzeko behar diren zerbitzu guztiak eman beharko ditu kontratistak, eta era egokian suntsitzen direla bermatu beharko du, alderdi teknikoari zein ingurumen-arloari dagokienez.

4.- KONTRATISTAREN OKNTURAKO GASTUAK

Kontratistak bere gain hartu beharko ditu kontratua egikaritzeko behar diren gastu guztiak, baita kontratuko dokumentuetan ezarritako guztiak ere:
- Terminalak hornitzetik eratorritakoak.
- Terminalek eskaini beharreko gutxieneko funtzionalitateen garapenetik eratorritakoak (osagaiak, aplikazioak, lizentziak eta abar).
- Terminalen euskarritik eta mantentze-lanetik eratorritakoak.

Prezioan sartuta daude gastu horiek guztiak, baita zergak, tasa eta ordainketa fiskal oro eta garraio- eta dieta-gastuak ere.

5.- BERMEALDIA.

Horniketa bakoitza hilabeteko (1) epean egin beharko da, esparru-akordioan oinarritutako kontratu bakoitza formalizatzen den unetik zenbatzen hasita. Mantentze-lanen, euskarriaren eta eguneratzearen zerbitzua esparru-akordioaren indarraldia amaitutakoan bukatuko da.

ESKU3de98c5f-c96b-4bf9-a179-2104aae5dcaa

6.- HORNITU BEHARREKO EKIPAMENDUAREN EZAGUTAK ETA BALDINTZA TEKNIKOAK

Jarraian zehaztu dira hornitu beharreko terminalek bete behar dituzten ezaugarri eta baldintza teknikoak. Gainera, apartatu honetan berariaz deskribatu gabeko beste edozein elementu edo funtzionalitate eskaini beharko du lizitatzaileak, makinek ondo funtzionatzeko beharrezkoak badira.

6.1.- Hardwarearen ezaugarriak

Terminalek, gutxienez, jarraian zehaztutako zehaztapenak bete beharko dituzte:
- Honako tamaina hau izango dute: 1.850 mm garai, 1.200 mm zabal eta 750 mm sakon.
- Bandalismoaren kontrako karkasa metalikoa. Terminalak karkasa bakarra izango du, eta han sartuko dira osagai eta periferiko guztiak. Karkasak sendoa eta gogorra izan beharko du, lekualdaketa posibleei, kolpeei edo bandalismoari aurre egiteko.
- Itxura pertsonalizatua Terminalak Lasarte-Oriako Udalaren irudi korporatiboarekin errotulatuko eta pertsonalizatuko dira.
- Diseinu egokitua. Terminalek diseinu egokitua izan beharko dute, mugikortasun urriko pertsonentzat eta gurpil-aulkia darabiltenentzat aproposa; irisgarritasunari buruzko Europako araudia bete beharko dute, eta bermatu beharko dute pertsona horiek terminalak erosotasunez erabili ahalko dituztela haien aulkietatik.

Ezaugarri teknikoei dagokienez, honako hauek bete beharko dituzte, gutxienez:
- Bandalismoaren kontrako ukipen-pantailadun interfazea eta sagudun teklatu metalikoa.
- Pantaila:
    - 19 hazbeteko pantaila kapazitiboa, 16:9 irudi-formatukoa.
    - Aurrealde % 100 zapala, markorik gabea
    - Aurreko erresistentzia-maila, IK-07
    - Bereizmena 1920x1080
    - Ikusmen horizontalaren angelua, 178º, eta bertikala, 178º
- Barneko ordenagailua:
    - 6 nukleoko prozesadorea
    - 8 GBeko RAM memoria, hedapen-slot libreekin
    - 512 GBeko SSD disko gogorra
    - Portuak: USB-C, VGA, HDMI, Ethernet, eta abar.
- Laser inprimagailua:
    - A4 tamainako papererako
    - Zuri-beltzean inprimatzekoa
    - 1. orrialdea inprimatzeko denbora: 8,5 segundo baino gutxiago
    - Inprimatze-abiadura: 26 orrialde minutuko
    - Gutxieneko lan-zikloa, 10.000 orri hilean
- A4 eskanerra:
    - Gutxieneko bereizmena, 4800x4800 puntu hazbeteko
    - Eskanerraren integrazio-ezaugarriek aukera eman behar diote erabiltzaileari hura erraz erabiltzeko, eta kalitatezko irudi ona lortzeko prozesua erraztu behar dute.
    -
- Txartel kriptografikoen irakurgailua.
    - NAN eta AIZ elektronikoekin eta txipdun ziurtagiri digitalen txartelekin bateragarria.
- NANak, AIZak eta pasaporteak eskaneatzeko eskanerra:
    - USB konexioa PCra
    - Firmwarearen Esb bidezko eguneratze automatikoa
    - Egoera-adierazleak
    - Kanpoko argindar-iturri unibertsala, 100-240 V AC 50/60 Hz

ESKU3de98c5f-c96b-4bf9-a179-2104aae5dcaa

- ABS-PC plastikozko kutxa solidoa
- Kensington e segurtasun-slota
- 4 mm-ko beira tenplatuzko leihoa
- FCC, CE, WEEE, RoHS erregelamenduak
- Irudiaren bereizmena, 500 DPI
- BMP, JPG eta PNG irudi-formatuak
- Koloreko irudiaren sakonera, 24 bit/pixel
- Karaktereen errekonozimendu optikoa (OCR)
- Windows eta Linux sistema eragile tradizionalekin bateragarria
- SDK garapen-kit osoa, DLLak eta demo programak barne C/C++, C #, Visual Basic 6.0, Delphi, VB.NET, Java programazio-hizkuntzak
- RFID funtzioa
- Dokumentuaren detekzio automatikoa
- Islak kentzea

- Txartelaz ordaintzeko datafonoa
- Ordainketa egindakoan ordainagiria inprimatzeko tiket-inprimagailua.
- USB 3.0 irakurgailua, USB 2.0rekin bateragarria, aurrealdean.
- Barra-kode alfanumerikoen irakurgailu estandarra, atzetik ere erabil daitekeena.
- Web-kamera eta/edo aurpegia ezagutzeko sistemak jartzeko prestatutako karkasa.

6.2.- Softwarearen ezaugarriak

Bulego elektronikoetan instalatutako softwareak honako ezaugarri orokor hauek izan beharko ditu:

- Interfaze atsegina, modernoa eta erabilerraza. Interfaze atsegina, bateragarria eta ukipen-pantailaren aukerez baliatzen dena izatea balioetsiko da. Lizitatzaileak bere eskaintzan pantailen irudien adibideak aurkeztu beharko ditu, bulego elektronikoetan instalatutako aplikazioak erakusten dituztenak.
- Autentifikaziorik behar ez duten izapideak NANa, AIZa eta pasaportea eskaneatuta egin ahalko dira, ziurtagiriarekin autentifikatzea behar dutenetarako, aldiz, honako autentifikazio-metodo hauek egongo dira:
    - Txipdun ziurtagiri elektronikoa, NAN elektronikoa barne. Horretarako, terminalean txertatutako irakurgailua erabiliko da.
    - Hodeiko beste ziurtagiri elektroniko batzuk, bereziki Izenperen BaK eta BaKQ, NIK Patrikaren bidezko identifikazioa txertatzeko aukerarekin. Eta kontratua egikaritu bitartean horretarako gaitutako beste edozein.

- Izapidean beharrezkoa bada, aukera egongo da eskatutako ziurtagiriak edo agiriak inprimatzeko, baita izapidea egitean sortutako egiaztagiriak ere. Inprimatutako dokumentuek formatu korporatiboa izango dute.
- Udalaren egoitza elektronikoa IZFEk ematen duenez, garatutako softwarea IZFEren sistemarekin integratu beharko da, definitzen diren zerbitzuak emateko, baita udal departamentuek eskatutako aplikazioekin, orrialdeekin edo plataformekin ere.
- Udalak sortutako ordainagiriak ordaintzeko Eusko Jaurlaritzaren ordainketa-pasabidearekin ere integratuko da.
- Interfazeak hizkuntza anitzekoa izan beharko du, eta ezartzen den unean Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan eskuragarri egon beharko du, gutxienez, baita udalaren iritziz gehitzea komeni den hizkuntzetan ere. EAEkoez besteko hizkuntza gehigarrietarako itzulpena ez dago kontratu honetan sartuta, eta udalak egingo du; horretarako, aplikazioak horretarako behar diren fitxategiak eta ezarpenak eduki beharko ditu.

ESKU3de98c5f-c96b-4bf9-a179-2104aae5dcaa

- Orrialde eta zerbitzu guztiak, besterik adierazi ezean, euskaraz agertuko dira, eta gaztelaniaz ikusi ahalko dira hizkuntzen menuan aukera horri sakatuta.

6.3.- Terminalak monitorizatzea eta erabileraren estatistikak

Enpresa adjudikaziodunak terminalak monitorizatzeko software bat izan beharko du, ekipamenduen jarduna etengabe kontrolatzeko aukera emango duena. Monitorizazio-software hori gai izango da udal teknikariei jakinarazpenak bidaltzeko, hala erabakiz gero.
Tresna horrek ustiapenaren datuak eskainiko ditu, eta aukera eman beharko du edozein terminaletatik (edo guztietatik) dataren araberako iragazketak egiteko. Egindako izapideen/zerbitzuen kopurua jasotzen duten txostenak edukiko dira, izapideak tipologiaren arabera sailkatzen dituztenak, terminal bakoitzerako zein oro har. Txosten horiek PDF eta CSV formatuetara esportatu ahalko dira.

7.- GORABEHEREi ERANTZUTEKO DENBORA

7.1.- Gorabeheren sailkapena

Kontratuaren arduradunak gorabeherak sailkatuko ditu, haien eraginaren arabera, eta sailkapenari dagokion erantzun bat eskatuko du, tipologiaren araberakoa, jarraian zehazten den moduan.
Gorabeherak honako tipologia hauetan sailkatuko dira, haien garrantziaren arabera:

- Gorabehera kritikoa: Halakotzat joko dira instalatutako bulego elektronikoren bat edo batzuk eskaini beharreko zerbitzurik gabe uzten dituztenak.
- Gorabehera larria: Halakotzat joko dira bulego elektroniko jakin bat eskaini behar dituen zerbitzuren bat gabe uzten dutenak, kritikoak ez badira, edo udalak erabiltzaileentzat duen irudiari nolabait eragiten diotenak.
- Gorabehera arrunta: Halakotzat joko dira aurreko tipologietan sartu ezin diren gainerako gorabeherak, herritarrei zerbitzua ematea oztopatzen ez dutenak, oro har.

Lasarte-Oriako Udalak izendatutako langileek erabakiko dute beti gorabeherak zer tipologiakoak diren, eta haiek sailkatuko dituzte gorabehera adjudikaziodunak emandako euskarriari jakinaraztean.
Udalak gorabehera baten berri ezarritako edozein bidetatik ematen duenetik aurrera, komunikazio horrenak izango dira gorabehera jaso izanaren eta hasi izanaren data eta ordua.

Adjudikaziodunak 30 minutuan baino gutxiagoan (ezarritako euskarriaren ordutegiaren barruan) erantzun beharko du (eta ebazten hasi), gorabehera kritikoa bada; 2 orduan larria bada; eta 8 orduan arrunta bada, jasotzen den unetik zenbatzen hasita.
Gorabeherak ebaztean erabiltzaileei ahalik eta eragozpen gutxien eragingo zaizkio, eta emandako zerbitzua ahalik eta gutxien etengo da. Horretarako, udalak zehaztutako orduetan eta egunean ebatziko dira.

Gorabeherak konplexuak badira edo bulego elektronikoen funtzionamendu orokorrari eragin diezaieketen erabakiak hartu behar badira, adjudikaziodunak gorabehera balioetsi beharko du, baita ebazteko egin beharreko prozedurak ere, eta alderdi horiek guztiak kontratuaren arduradunari jakinarazi beharko dizkio, hura arduratuko baita oniritzia emateaz, gorabehera ebatz dadin.

Gorabehera ebatzitakoan, adjudikaziodunak jarduketaren berri emango dio udalari, kontratuaren arduradunak ezarritako prozedurei jarraituz.

7.1.- Gorabeherak ebaztea

Lizitatzaileak mantentze-lan zuzentzailea egingo du, bulego elektronikoetan softwarearekin zein hardwarearekin izandako gorabehera guztiak konpontzeko.

ESKU3de98c5f-c96b-4bf9-a179-2104aae5dcaa

Erantzun-denborak gorabeheraren sailkapenaren araberakoak izango dira, agiri honetako Gorabeheren sailkapena, funtzionalitatea eta tratamendua apartatuan jasotakoari jarraituz. Lanordutan edo lanegunetan ezarri dira, jarraian zehaztutako moduan:

- Gorabehera kritikoa: Gorabehera hauek 2 orduan ebatzi beharko dira, gehienez ere, gorabeheraren berri jasotzen denetik zenbatzen hasita.
- Gorabehera larria: Gorabehera hauek 24 orduan ebatzi beharko dira, gehienez ere, gorabeheraren berri jasotzen denetik zenbatzen hasita.
- Gorabehera arrunta: Gorabehera hauek 5 egunean ebatzi beharko dira, gehienez ere, gorabeheraren berri jasotzen denetik zenbatzen hasita.

Egunak zenbatzeko ez dira aintzat hartuko adjudikaziodunari ez dagozkion kausengatik gertatutako atzerapenak, hau da, honako hauengatik jazotakoak:

- Udalaren ondorioz gertatutako atzerapenak.

Ezinbesteko kasuen ondoriozko atzerapenak, adjudikaziodunari gorabehera konpontzea eragozten diotenak.

Udalak bere ingurunearen arazoen edo zalantzen berri eman ahalko du, hainbat modutan:

= Arazoak kontrolatuko eta detektatuko dituen monitorizazio-sistema baten bidez, zeinak zerbitzu-eskaera bakarrik egingo baitu.
= Adjudikaziodunari telefonoz deituta.
= Gorabeherak online irekitzeko euskarri-atari baten bidez.

= Gainera, arazoen eskala ezartzeko sistema automatizatu bat eduki beharko da, zerbitzu-deietan komunikazio eraginkorra izateko, hasi eta buka.

8.- INSTALAZIOA

Terminal bakoitzaren instalazio fisikoa enpresa adjudikaziodunaren kontura joango da. Instalazioa Idazkaritza eta Zerbitzu departamentuen gainbegiradapean egin beharko da, Lasarte-Oriako Udalak adierazitako lekuetan.

Enpresa adjudikaziodunak arduradun bat izendatu beharko du, lanen ardura osoa hartuko duena.

Lasarte-Oriako Udalaren kontura izango da bulego elektronikoak instalatzeko behar den obra zibil oro, baita sare elektrikorako eta datu-sarerako konexioak ere.

Instalazio bakoitzean, enpresa kontratistak zehatz-mehatz azalduko du zer lan egin behar den, terminala eman baino 15 egun lehenago, muntaketaren fase guztiak barne, behar diren bitarteko teknikoak eta giza bitartekoak adieraziko ditu, baita instalazio osoaren iraunaldia eta instalazioaren iraupen zenbatetsia ere.

Enpresa adjudikaziodunak bere gain hatuko du makina berria instalatzean edo egungoa kentzean gertatutako kalteak, makinok eragin badituzte.

Ekipamenduak testatu eta udalak nahi bezala funtzionatzen dutela egiaztatu arte ez da jasotzea formalizatuko. Orduan, hornidura jaso izanaren akta egingo da, eta, hala badagokio, jasota utziko da zer proba egin diren.

Ekipamendu guztiak behar besteko egonkortasuna izango du bere horretan, lurrera edo hormara ainguratu beharrik gabe.

ESKU3de98c5f-c96b-4bf9-a179-2104aae5dcaa

Kokapenak, terminalek eta zerbitzuek 2019/882 (EB) Zuzentarauan, produktu eta zerbitzu jakin batzuentzako irisgarritasun betekizunei buruzkoan, zehaztutako irisgarritasun-baldintzak bete beharko ditu, baita honako lege honetakoak ere: 11/2023 Legea, maiatzaren 8koan, produktu eta zerbitzu jakin batzuen irisgarritasunaren, pertsona oso kualifikatuen migrazioaren, zergen eta notarioen eta erregistroen jarduketak digitalizatzearen alorrean Europar Batasuneko zuzentarauak bertako legedira ekartzen eta kalte nuklearrengatiko edo material erradiaktiboengatiko kalteen erantzukizun zibilari buruzko maiatzaren 27ko 12/2011 Legea aldatzen duena.

9. BERMEAK

Horniduren eta piezen legezko bermea hiru urtekoa izango da. Konponketarako piezak eta zerbitzu tekniko egoki bat mantentzeko betebeharra hamar urtekoa izango da produktua fabrikatzeari uzten zaionetik aurrera.

Bermeak ekipamenduak estali beharko ditu, baita akats erabatekoa edo partezkoa sortzen duen instalazioaren beste edozein elementu edo material ere, eta adjudikaziodunak egingo ditu konponketa-lan guztiak. Hortaz, adjudikaziodunak nahitaez konpondu beharko ditu instalatzaileari, hornitzaileari edo fabrikatzaileari egotz dakizkiokeen kausen ondorioz kaltetutako osagai edo osagai akastun guztiak, eta, konponketa nahikoa ez bada, hornitutako materiala ordeztu beharko du.

Baldin eta bermealdian frogatzen bada egindako lanetan akatsak egon direla, kontratazio-organoak eskubidea izango du kontratistari ondasun desegokiak ordezteko erreklamatzea, edo, hala badagokio, konpon ditzala eskatzea. Udalak erabakiko du bi aukeretako zeini heldu.

Adjudikaziodunak bermealdiak iraun bitartean bere gain hartuko ditu ordezte edo konponketa horiek egiteko behar diren lanak. Bermealdia igaro eta udalak ez badu eragozpenik edo salaketarik formalizatu, egindako lanengatiko erantzukizunetik salbuetsita geldituko da kontratista, eta behin betiko bermea itzuliko zaio.

10.- ARAUDIRA EGOKITZEA

Esparru-akordio hau eta hartan oinarritutako kontratuak indarrean egon bitartean, elementu digitalak dituzten produktuen bizi-zikloan segurtasuna bermatzeko, kontratistak kontratuaren xede diren zerbitzuak eman beharko ditu, mailaka egokituz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2024/2847 Erregelamenduari,elementu digitalak dituzten produktuetarako zibersegurtasunaren betekizun horizontalei buruzkoari, hau da, (EB) 168/2013 Erregelamendua eta (EB) 2019/1020 Erregelamendua eta (EB) 2020/1828 Zuzentaraua aldatzen dituenari Erregelamenduari (Zibererresilientzia Erregelamendua).

11. JABETZA INTELEKTUALA

Makinetan instalatutako garapenen eta aplikazioen jabetza intelektuala Lasarte-Oriako Udalarena izango da. Adjudikaziodunak instalatutako aplikazioen iturri kodea eta dokumentazioa emango dio udalari.

12. KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratistak ezingo du daturik edo edukirik erabili edo zabaldu, osorik edo partez, zuzenean zein zatika, eta nahitaez bete beharko du 3/2018 Lege Organikoan, abenduaren 5ekoan, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak bermatzeari buruzkoan, xedatutakoa.

ESKU3de98c5f-c96b-4bf9-a179-2104aae5dcaa

Adjudikaziodunak nahitaez mantendu beharko du kontratua betetzeagatik ezagut dezakeen datu ororen konfidentzialtasuna eta erreserba, eta ezingo du halakorik kopiatu edo erabili agiri honetan ezarritakoaz besteko xederen batekin; halaber, ezingo dio daturik beste inori laga.

13. PRESTAKUNTZA

3.3. klausulan jasotakoari jarraituz, kontratistak Lasarte-Oriako Udaleko langileei prestakuntza eman beharko die:

a. Udaleko informatika-zerbitzuarentzako nahikoa prestakuntza, ekipamendua monitorizatzeko eta haren estatistikak erabiltzeko, baita gertatu daitezkeen gorabeherak konpontzeko ere.
b. Udal langileentzako nahikoa prestakuntza, herritarrei ekipamenduetan instalatutako aplikazioak ondo erabiltzeko orientabideak emateko.

Prestakuntza lan hori, hasieran, ekipamenduak instalatu eta astebetean emango da, gehienez ere, eta urtero eguneratuko da kolektibo berberentzako prestakuntza.

14. MANTENTZE- ETA EGUNERATZE-LANEN KONTROLA ETA JARRAIPENA

Lanen jarraipenerako eta kontrolerako honako funtzionamendu-sistema hau erabiliko da:

Enpresa adjudikaziodunak proaktiboa izan beharko du terminalak mantentzeko eta eguneratzeko lanetan, aurreko ezein errekerimenduren beharrik gabe.

Kontratuaren arduradunak egin beharko du jarraipen-bileretarako deia, baita lanak ondo egiteko egoki iritzitako bilera guztietarakoa ere. Jarraipen-bilera bakoitzean, enpresa adjudikaziodunak dagokion akta egingo du, eta bertaratuek onetsi beharko dute.

Berrikuspen teknikoaren ondoren, kontratuaren arduradunak enpresa adjudikaziodunari adieraziko dio, hala badagokio, egindako lanak osorik edo partez errefusatzen dituela, adostutakoa betetzen ez badute edo kalitate-kontrolak gainditu ezean.

Plangintzaren eta egindako lanaren egoera errealaren artean alderik hautemanez gero, enpresa adjudikaziodunak dagozkion ekintza zuzentzaileak egin beharko ditu, udalarekin adostu eta gero.

Udalak ez du erantzukizun zuzenekorik, solidariorik edo subsidiariorik izango enpresa adjudikaziodunaren laneko betebeharren betetze-mailari dagokionez, ezta, hala badagokio, lan-kontratuak suntsiaraztetik erator daitezkeen ondorioena ere, hala kontratu honen indarraldian gertatutakoena nola bukatu ostekoena. Hain zuzen, enpresa adjudikaziodunak bere gain hartzen ditu horietatik eratorritako ondorio juridiko eta lan arloko ondorio guztiak.

Udalak ez du antolakuntzako edo zuzendaritzako inolako ahalmenik izango zerbitzuak enpresa adjudikaziodunean ematen dituztenei dagokienez, eta ez du haiekin laneko harreman juridiko, zibil edo administratiborik izango.

Lasarte-Oriako Udalak ez du bere gain hartuko enpresari bere produktuengatik zibersegurtasunaren eta zibererresilientziaren alorrean dagozkion legezko betebeharrik.

15. ALDAKETAK

Ez dira aurreikusi.

ESKU3de98c5f-c96b-4bf9-a179-2104aae5dcaa

Hala eta guztiz ere, esparru-akordioaren adjudikaziodunak kontratazio-organoari proposatu ahalko dio adjudikatutako ondasunak eta zerbitzuak beste batzuekin ordeztea, adjudikatutakoenak baino prestazio edo ezaugarri hobeak, edo aurrerapen edo berrikuntza teknologikoak dituztenekin, baldin eta haien prezioa ez bada adjudikaziodunaren hasierako prezioaren % 10 baino gehiago igotzen.

16. ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK

A) BALIO-JUDIZIOEN BIDEZ BALIOETSI BEHARREKO IRIZPIDEAK: 25 puntu

=Memoria teknikoa (0-25 puntu)
25 puntu emango zaizkio, gehienez, egokien iritzitako proiektuari edo memoria teknikoari.
Proiektu edo memoria tekniko horrek honako apartatu, puntu eta betekizun hauek izan beharko ditu, balioetsi ahal izateko bezainbesteko xehetasun eta guzti.

a) Erabilgarritasuna (9,5 puntu)
Aplikazioaren erabilgarritasuna balioetsiko da. Zehazki, terminaletako aplikazioaren hasiera-orriaren eta gainerakoen diseinuaren erabilgarritasuna, hau da, erabiltzeko intuitiboa eta erraza izatea.
Horretarako, aplikazioaren diseinu-proposamen bat aurkeztu beharko da. Bertan, hasiera-orriaren eta aurreragoko orrien edukiak zehaztuko dira, eta erabiltzaileek aplikazioaren eta haren fluxuaren arabera egingo dituen urratsak ere bai.

b) Funtzionalitate gehigarriak (9,5 puntu)
Preskripzio teknikoen agirian zehaztutako gutxieneko funtzionalitateez gain eskainitako funtzionalitate gehigarriak eta ekar dezaketen balio erantsia balioetsiko dira.
Funtzionalitate gehigarri horiek zehatz-mehatz azaldu beharko dira, baita bakoitzak ekar dezakeen balio erantsia ere.

c) Nortasun grafikoa pertsonalizatzea (4,5 puntu)
Terminalak udal nortasun grafikora egokitzeko pertsonalizazio-maila balioetsiko da.
Horretarako, terminalaren diseinu grafikoaren proposamen bat aurkeztu beharko da.

d) Araudi berrira egokitzeko plana: 1,5 puntu
Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2024/2847 Erregelamenduari,elementu digitalak dituzten produktuetarako zibersegurtasunaren betekizun horizontalei buruzkoari, hau da, (EB) 168/2013 Erregelamendua eta (EB) 2019/1020 Erregelamendua eta (EB) 2020/1828 Zuzentaraua aldatzen dituenari Erregelamenduari (Zibererresilientzia Erregelamendua) kontratista eta haren produktuak nola egokitzen diren azaltzea.

B) FORMULEN BIDEZ BALIOTSI BEHARREKO IRIZPIDEAK: 75 puntu

=Prezioa (0-60 puntu)

=Bermealdia zabaltzea (0-3 puntu): Puntu bat gutxieneko hiru urteko bermealdia zabaltzen duen urte bakoitzeko.

=Gorabehera arinei erantzuteko denbora murriztea (0-3 puntu). Prezioaren formula erabiliko da ebazteko

- Garapen berrietarako orduen poltsa (0-4 puntu): Prezioaren formula erabiliko da ebazteko

ESKU3de98c5f-c96b-4bf9-a179-2104aae5dcaa

=Berdintasuna(0-5 puntu) Enpresa adjudikazioduneko langileei Berdintasunaren alorreko prestakuntza ematea, 15 ordu, gutxienez.

Lasarte-Orian, sinadura elektronikoaren datako egunean

Informatikako udal zerbitzua
Iker Sanchez Urbizu

EKS | CSV: ESKU3de98c5f-c96b-4bf9-a179-2104aae5dcaa
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=08310
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=08310